



Nola sortu komunikamena neurtzeko testak: kasu baten azterketa

Keith Morrow

*Erresuma Batuan ingelesa hizkuntza arrotzaren irakaskuntzan komuni-
kamena neurtzeko sortu diren azterketa batzuen gorabeherak eta
ñabardurak azaltzen ditu artikulu honek. Egilearen ustez, hizkuntza bat
"bere herrian" irakastea berdintsua da beti, dela ingelesa Erresuma
Batuan, dela euskara Euskal Herrian. Artikulugileak, bere eskarmentuan
oinarriturik, komunikamena sailkatu eta aztertze moduari buruz hain-
bat iradokizun egiten ditu. Bere ustez, baliagarriak izango dira euskara-
ren irakaskuntza/ebaluazioan ari diren irakasle eta ikertzaileentzat. Lau
trebetasunak neurtzeko azterketak sortzeko oinarria ezartzen du artiku-
luan eta, adibideak emanez, komunikazio-helburuak bateratuz ikasgela
eta test/azterketak nola elkarrekin lotu ere argitzen du.*

Sarrera eta aurrekariak

*Zergatik arduratu
hizkuntz azterketez?*

Behien bistakoa izango da irakurle askorentzat galdera horren erantzuna. Irakasleak azterketak egiten dituzte beti egin izan dituztelako. Ikasleek badakite aztertuak izango direla beti hala gertatu delako. Hizkuntzen irakaskuntz programan azterketarik egingo ez balitz, zerbaiten hutsa nabaritutuko lukete irakasle/ikasleek.

Jakina, erantzun hori aldeaz bakarrik da asegarria. Ikasle/irakasleek espero dutena kontuan hartu behar da hizkuntz programa antolatze-rakoan, bai, baina izango dira seguraski beste arrazoi batzuk hizkuntz azterketari garrantzi handia emateko, bai umeentzako programetan baita helduentzakoetan ere. *Motibazioa, aurrerapena eta ziurtagiria* dira lan honetan bereziki azaldu nahiko nituzkeen hiru arrazoiak.

Egitan, lehenengoaren barruan daude beste biak. *Motibazioak* indar handia du hizkuntzak ondo ikasteko. Motibazioak, dela barrengoak (ikasleak hizkuntza hori ikasi nahia) dela kanpokoak (laneko arrazoiak, beharbada), asko lagunduko baitie helburu garrantzitsu eta garbi baten bila aurrera doazela nabaritzeak. Aurrerabide horretan ari direla nabaritzeko oso egokiak dira ondo antolatutako testak, ikasleei beren gaitasunaren neurria emango baitie, aldi berean alderdi sendoen euskarriaz arlo ahulagoak konpontzeko aukera eskainiz. Ziurtagiriak garrantzi handia izan dezake ikasleentzat lortu dutena baieztu eta egiaztatuz, eta, ondorioz, ikasi duten hizkuntzarekin zer egin dezaketen azalduz. Azterketez “kezkatzeko” hiru arrazoi horien argitan, testez baliatzeko bi modu, aski desberdinak, nabarmentzen dira. Batak ikasgelako jardunean du oinarria. Azterketa ikasprozesuaren barnean ikusten du; egindako aurrerapenen berri emango die azterketak ikasleei (eta irakasleei). Irakasleari (eta ikasleei) segidan egin beharreko lana zein den eta nola egin erakutsiko dio.

Beste erabilera-modua kanpoko da eta ikasleak maila jakin bat lortu duen ala ez duen erabakitzeko oinarria ematea du xede. Ikasgelan aritu diren ikasleei buruzko informazioa handik kanpora emateko diseinatua dago.

Ziurtagiria emateko asmoz egiten diren azterketak, bigarren erakoak alegia, moldatzeko moduak ikertu nahi ditut lan honetan, baina etengabeko aurrerabide batean ikasleak motibatzeak izan dezaketen indarra azpimarratuz. Oinarrizko ideia bat, arlo honetan nagusi-nagusia, “atze-raeragin” (washback) positiboa da, hots, ikasleak azterketarako prestatzen direnean testak moldatu eta aplikatzeak ikasgelan izan dezaken eragin baikorra.

Baliodunak gauza praktikoak direnez, egoki izango da aztertzea nola sortu zen test-multzo berezi bat ingelesa hizkuntza arrotza (EFL) aztertzeko; horrela ikusiko dugu zer atera daitekeen hortik euskararen azterketarako (eta irakaskuntzarako).

*Ingelesezk
komunikazio-
-trebetasunen
ziurtagiriak (CCSE)*

Cambridgeko Unibertsitateko Lekuan Lekuko Azterketen Sindikatuak (UCLES) darama gaur egun CCSE programa. UCLES da Europan ingelesa hizkuntza arrotzaren azterketarako testen hornitzailearik handiena eta 1988an beregain hartu zituen Royal Society of Arts-en (RSA) EFL azterketak. RSAk hainbat azterketa sortuak zituen Ingelesa Hizkuntza Arrotzaren Erabilera komunikatiboa (CUELF) izenez ezaguna zirenak, eta programa hartatik sortua da gaurko CCSE.

Hirurogeita hamargarren urteen azken aldera sortu zen CUELF, orduan indarrean zegoen hizkuntzen irakaskuntza *komunikatiboaren* kezka ondorioz. Hasiera-hasieratik asmoa izan zen irakaskuntza aurrerabideratzeko modua eman zezatela; eta, horretarako, irakasle aurrerakoien lan egiteko erari zegozkien azterketak eskaini ziren.

CUELF azterketak ingelesaren ikasle helduentzat ziren (16 urtetik gorakoak). Ikasle hauek gaitasun-agiria nahi zuten hainbat xede komunikatibo eta praktikotarako. Hiru mailatarako azterketak moldatu ziren (oina-

rrizkoa, ertaina eta aurreratua) eta maila bakoitzean test desberdinak eskaintzen ziren: ulermenarena, idazmenarena, entzumenarena eta mintzamenarena. Urtean bitan egiten ziren azterketak eta azterketariak nahi zuen maila eta nahi zuen testa aukeratzen zituen; eta gainditu zuen arloko ziurtagiria hartzen zuen.

Azterketen diseinuan funtsezko ezaugarria malgutasuna zen. Hiru mailetan lau trebetasunetako bakoitzean nahi zuen azterketa aukeratzeko moduan eskaintzen baitzitzaizkion, azterketariak bere beharren neurriko ziurtagiria jaso zezakeen. Are garrantzi handiagokoa zen *egiteko gauza zenarengatik* ziurtagiria jasotzen zuela, baina horrek ez zuela *egin ezin zuenaz* ezer esaten. (Ohiko azterketarik gehienetan lau trebetasunak neurtzen baitira, esaterako, idazkeran makal dabilen ikasleak ez du froga gaindituko, irakurmenean edo mintzamenean oso aurrera egonda ere).

Test horietan oso aintzat hartu zen beste alderdia *performantziarena* izan zen. Gero ikusiko dugu horrek zer dakarren, baina adieraz dezagun test bat, esate baterako, mintzamenari edo idazmenari begira egina dagoenean, oso bestelakoa izango dela gramatikari edo hiztegiari begira egindako beste bati buruz. Bigarren azterketa-mota honek ikasleak hizkuntzaren osakin eraikitzaileak nola darabiltzan adieraziko du, ea aurrez markatutako etxe-zatia bukatzeko material egokia aukeratzeko gauza den.

Idazmena edo mintzamena neurtzeko testak, aitzitik, ez du erakutsiko “adreilu” edo “bloke” egokiak aukeratzeko gai den (nahiz eta hori ere barnean egon). Norbaitekin hitz egiteak ez du bakarrik falta diren adreiluak jartzea eskatzen, “etxea” diseinatu eta eraikitzea ere eskatzen du eta, are gehiago, etxea solaskidearekin elkarlanean jasotzea. Elkarriketetan bere helburuak eta xedeak ditu solaskide bakoitzak eta horiek elkarrekin landuz, elkarbanatuz eta horien tratamendua elkarrekin erabakiz eraikitzen da solasaldia. Komunikazio-testak, beraz, gramatikako osakin bat zuzen ala oker erabiltzea baino askoz arazo korapilatsuagoa du esku artean. Horrelako test bat diseinatzeak eskatzen du azterketariak maila bakoitzeko arlo bakoitzean zer-nolako trebetasunak izan behar dituen erabakitzea; eta, gero, azterketari bakoitzak eskakizun horiek bete dituen ala ez nola epaitu ere erakutsi behar du.

Gai horiek guztiak landu ziren CUELF programan eta item-multzo zehatzak prestatu ziren azterketariak, ziurtagiria eskuratu nahi bazuen, lau mailetako bakoitzean eta trebetasunez trebetasun *zer eta nola egin beharko zuen* erabakiz.

Gaur egun UCLESek zuzentzen duen programan, aldatu egin da apurtxo bat CUELFen hasierako egitura eta baita zabaldu ere; gaur lau maila daude lehengo hiruen ordean. Baina programaren oinarritzko printzipioak lehengoak berak dira.

*Honek zer ikusteko
du euskararen
irakaskuntzarekin?*

Euskara-irakasleak pentsa dezake. “Oso ondo, eta niri zer axola zait hori? Jakina, CCSEren eskemak dagoen-dagoenean ez du esanahirik euskararen irakaskuntzan. Ala bai?

Egiantan, zenbait puntutan Ingalaterran ingelesaren erabilera komunikatiboa neurtzeko sortu diren testen problematika bat dator Euskal Herrian euskararen erabilera komunikatiboa sustatzeko garatu diren irakaskuntza eta ebaluazio-metodoekin.

Antzik handiena “hizkuntza bigarren hizkuntza gisa” erabiltzeko kontestuan dago. Erresuma Batura ingelesa ikastera datozen gehienak helburu praktikoren batekin datoz. Ingelesa ikasi nahi izaten dute hizkuntza hori hitz egiten den eta berehalako balio argia izango duen inguru batean. Eta horren antzekoa da Euskal Herriko egoera ere. Euskara ikasten ari diren heldurik gehienek komunikatzeko tresna gisa erabiltzeko ikasi nahi dute eta badituzte eguneroko bizitzan ikasgelan ikasi dutena landu eta garatzeko moduak. “Ikasgelako” eta “kanpoko munduko” hizkeren arteko hurbiltasun honek gauza bera dakarkie Ingalaterran ingelesa ikasten dutenei eta Euskal Herrian euskara ikasten dutenei: hizkuntzarekin eta hizkuntzaren bitartez “gauzak egiteko modua” - bestalde, trebetasun hori ziurtatu eta sustatzeko modua ere eskura daukate.

Esperientziak elkarbanatzeko asmoz idatzia da, beraz, lan hau eta horrelaxe hurbil zaitezke hona euskararen irakasle zaren hori.

**CCSE programaren
printzipio
orokorrak eta
ezaugarri nagusiak**

Lehen ere esana dugun legez, ikasleak hainbat mailatan (1-4) eta hainbat jardun komunikatibotan (entzumena, idazmena, mintzamina, ulermenena) duen gaitasuna zuzenean neurtzeko modua izan nahi dute CCSE testek. Testaren diseinuaren muina da azterketariak benetako munduan erabiliko lukeen hizkera islatuko duten azterketa-formatoak ezartzea.

Benetakotasuna

Benetakotasuna izango da, ondorioz, azterketaren diseinuak izango duen funtsezko ezaugarrietan bat. Aitortu beharrekoa da, hala ere, ezin dela lortu erabateko benetakotasunik, ez ikasgelan ez azterketan. Azterketara aurkezten dena, azken finean, hizkuntz azterketara aurkezten da, ez dago “eguneroko” hizkera “normala” erabiltzeko egoeran. Psikologiaren aldetik aski era desberdinak dira bata eta bestea. “Benetako” komunikazioko tentsioak eta larritasunak azterketakoak baino handiagoak edo txikiagoak izan daitezke, baina seguru-seguru beste era batekoak direla. Eta ez dago azterketan kanpoko munduaren zati handi bat berregiteko modurik. Azterketari bat tabernan euskaraz edo ingelesez zerbait eskatzeko gauza den jakin nahi denean, ezin ekar daiteke taberna bat bere zerbitzari eta guzti azterketa-lekura, eta are gutxiago ikaslea une horretan egarriak gongo dela ziurtatu.

Alabaina, begien bistakoa da CCSE azterketen kontestuan merezi duela ahalik eta girorik egiazkoena sortzea, bai azterketan bertan izango duen eraginagatik, bai azterketa horietarako prestakuntzarako saioetan izango duenarengatik (atzeraeragina, alegia). Bi arlotara biltzen da nagusiki egiazkotasunaren kezka hori: testuaren egiazkotasuna eta atazaren egiazkotasuna.

Ezagun samarra da testuaren egiazkotasunaren gai hori Ingalaterran ingelesaren irakaskuntzan. “Benetako” hizkeratik ateratako adibideak erabiltzea da kontua, ikasgelatik kanpoko “benetako” mundutik bildu eta ulertu eta landu direnak. Horrela, irakurmena lantzeko testuak ez daude ikasleek ulertzeko moduan idatziak edo sinpletuak; aitzitik, lehen begiratu batean beren maila baino goixeagokoak ematen duten testuekin lan egitera jartzen dira ikasleak. Jakina, “benetako” testu guztiak ez dira ikasgelan edo azterketan erabiltzeko egokiak (edukiaren, interesaren edo garrantziaren aldetik), eta, begien bistakoa da zenbait “benetako” testu besteak baino errazagoak direla hizkuntzaren aldetik. Baina garrantzi handiko printzipioa da erabiliko diren testuak ikaslearentzako duten interes eta garrantziagatik aukeratzea eta ez hizkuntz arrazoi hutsengatik.

Atazaren benetakotasuna ere garrantzi handiko kontzeptua da, baina zehazten zaila. Izan ere, hizkuntza beti zerbaiterako erabiltzen baita. Inork galdetuko balit: “Zertarako ari zara artikulu hori idazten?” erantzun diezaioket neure ideiak argitzeko eta beste batzuei berenak argitzen laguntzeko idazten dudala; noiznahi utz diezaioket idazteari eta ekonomi ministroari irratiz entzun nola aurkezten dituen estatuaren aurrekontuak. Zergez esango duena jakin nahi dut; beraz, jakiteko entzuten diot. Gauean, emaztea etxeratzen denean, berarekin hitz egingo dut proposamen berriek nolako eragina izango duten gure etxean. Bihar goizean egunkariak irakurriko ditut iruzkingile politikoei zer pentsatzen duten jakiteko, ea laster hauteskunderik izango den. Hitz gutxitan, hizkuntza erabiltzen dudanero (idatziz, irakurri, hitz eginez edo entzunez) helbururen bat lortu nahi dudala. Hizkuntzaren bitartez zerbait egiten ari naiz.

Ikasgelako jardun askotan (eta ohiko azterketa askotan) ikasleek ez dute hizkuntzaren *bitartez* ezer egiten. Hizkuntz formak erabiltzen dituzte, baina ez dute inolako xederik lortzen, eskuartean darabiltzaten formak menderatzen dituztela (edo ez dituztela) azaltzeaz aparte. Hori ez da nik goian azaldu dudan moduko ataza bat, eta era horretan, ezer eskatzen ez duten atazak ez dira benetakoak. Hona bi adibide hori argiagotzeko:

1. adibidea

Irakurri testu hau eta idatzi falta diren hitzak:

Horrek duen ezaugarriak nabarmenetakoa bere izaera _____ da. Bestela esanda, ezin zatika daitekeela _____ izaera hori apurtu gabe. Osagai formalak _____ eta aztertu egin daitezke. Baina hizkuntza _____ erabiltzen denean osagai horiek ezin daitezke _____ isolatu. Norbaitek osagai horiek modu isolatuan menderatzeak _____ du adierazten komunikatzeko gaitasuna duenik.

2. adibidea

Zure lagun ingeles edo euskaldun bat ospitalean dago hanka hautsita. Idatz iezaiozu gutun bat adorea emateko.

Lehenengo adibideari cloze-testa deitzen diogu. Testu bat hartu eta beti tarte berdinekin zuriguneak uzten dira hitzen ordez. Hemen zazpi hitzetik bat kendu dugu. Azterketariaren egitekoa da zurigunea betetzea jatorrizko hitza edo haren ordain onargarri bat idatziz. Hauxe duzu teknika bat hizkuntz azterketetan asko erabiltzen dena, eta esan ohi da horrelako atazak oso egokiak direla hizkuntzako trebetasunak neurtzeko. Hots, zenbat eta hutsune gehiago betetzeko gauza izan, orduan eta hobeazarela hizkuntza horretan.

Era askotan oso erakargarria da cloze-testa azterketak prestatu eta aplikatzen dituztenen ikuspegitik. Erraz eratzten da eta ebaluatzea ere aski erraza da. Baina hemen esku artean dugun auzian bi akats ditu. Bata, atzeraeragin oso kaltegarria izan dezakeela. Azterketa cloze-testez egingo baldin bada, handia izango da ikasle-irakasleentzat ikasgelan ere era horretan lan egiteko tentazioa. Eta azkar asko aspertuko dira. Bigarren baldintza betetzen ez delako izango dira, hain zuzen ere, aspergarriak, *benetako atazak ez direlako*. Benetako munduan (nork bere hizkuntzan egiten duenean) jendea ez da aritzen zortzi hitzetik bat kendua duten testuak irakurtzen eta zer gertatu ote den asmatzen. Ikasgelan edo azterketan hori egiteko eskatzea ekintza artifizial eta motibazio-indarrik gabekoak egiten denbora pasatzea besterik ez da.

Bigarren adibidea, *benetako* ataza da hemen esaten ari garen eran. Lagunei gutunak idaztea benetako munduko eginkizuna da argi eta garbi, eta lehen aipatutako ezaugarri bat badu, oso erraz irudika dezakeela ikasleak bere burua hori bere hizkuntzan egiten. Hizkuntza arrotzean edo bigarrenetan hori egiteko eskatzeak ez du benetakotasuna hiltzen. Egia da, esan daiteke azterketariak ez duela ospitalean hanka hautsita dagoen lagunik, eta, hortaz, ataza hau ere ez dela benetakoa. Eta hala da, baina benetakoa den zerbait *berregiten* du, cloze-testak ez bezala. Eta, gainera, ekintza horretan oinarritutako azterketen atzeraeragina askoz ere onuragarriagoa izango da, beste batek idatzitako testu batean hutsuneak betetzen aritzearena baino.

Hizkuntz azterketan gutunak idazteko atazak berekin duen zailtasuna, zalantzarik gabe, zuzen eta pulamentuz neurtzekoa da. Horixe izango da, beste trebetasunetarako ataza benetakoak asmatzeak berekin dituen zailtasunekin batera, artikulu honetako hurrengo atalen gaietan bat (banan-banan ikertuko ditugu lau trebetasunak).

Mailak

Behin baino gehiagotan esan dut CCSE programak lau mailatan funtzionatzen duela. Azterketariak lau mailetako edozein trebetasunen azterketara aurkez daitezke (baina ez trebetasun bakoitzean maila bat baino gehiagotara). Mailak dira hasi oinarritzotik (1. maila) eta aurreratuenera arte (4. maila). Nola daude, ordea, mugatuak lau maila horiek?

Ohikoa izan da hizkuntzen irakaskuntzan eta azterketetan mailak gramatika eta hiztegi-zerrenden bidez zedarritzea. Elkarren segidan analizatu eta irakatsi izan dira hizkuntzaren “egiturak”; era berean hiztegia-

ren elementu ohikoen edo “baliagarrienak”. Horrela moldatzen dira egitura eta hiztegi horien ezagutza neurtuko duten testak. Alde horretatik, “aurreratuagoak” “gehiago” esan nahi du, zeren espero baita goi-mailako ikasleak behekoak baino gramatika “gehiago” eta hiztegi “gehiago” jakingo duela.

Ikuspegi komunikatiboaren haritik, ordea, “aurreratuago” berdin “gehiago” delako hori hobeto aztertu beharra dago. Maila batean, bai, egia da. Era batera, itxarotekoa da goi-mailetako ikasleak behekoetakoak baino gehiago egiteko gauza izango direla. Baina “hobeto” ideia ere begiratu beharko diogu. Planteamendu komunikatiboan, uste dugu, goi-mailako ikasleak gai izango dira gauzak beheko mailetakoak baino *hobeto egiteko*. Arestiko bigarren adibidean (ospitalean dagoen lagunari gutuna idatzi), itxaro dezakegu behe-mailako ikaslea lagunari nola edo halako gutuna idazteko gauza izango dela. Baina goi-mailako ikaslearengandik espero dugu gutun hori bera “hobeto” idatziko duela. Zer da, ordea, “hobeto”? Ziur baino ziurrago “gehiago” ez dela.

Hiru elementuren arabera sailkatzen da CCSE programan maila bakoitzean itxaro den trebetasuna:

a. ataza

b. testu-mota

c. trebetasun-maila

Bi lehenengoak kuantitatiboak dira, hots aurreratua berdin gehiago. Zenbat eta maila altuago, orduan eta ataza eta testu-mota gehiago zehazten dira. Hirugarrena, ordea, kualitatiboa da. Goi-mailetan trebetasuna behekoetan baino “hobea” dela nola erabaki adierazten du.

Azter ditzagun banan-banan.

a. *Ataza*

Azterketako maila bakoitzean eta trebetasun-mota bakoitzarentzat ataza-multzo bat ezartzen da azterketariak zer “egitea” itxaro daitekeen markatuko duena. Aski sinplea da trebetasun sortzaileetan (idazmena, mintzamina) atazak aukeratzea. Zera espero da: ikasleek *trebetasun-maila* bateko *testu-mota* jakin batzuk ekoiztuko dituztela. (Ikus aurrerago termino hauen azalpen argiagoa.) Adibidez, aukeratutako testueta-ko bat gutun informala baldin bada, ataza mota horretako gutun bat idaztea izango da. Azterketariak idatziko duena maila horretarako ezarri diren trebetasun-irizpideez neurtuko da.

Trebetasun hartzaileetan (ulermena eta entzumena), aitzitik, askoz ere zailagoa da ataza aukeratzen. Nola neurtu, izan ere, entzuten edo irakurtzen ari dena zer egiten ari den? Zer *eginkizun* jar dakioke ikasleari maila bakoitzean?

CCSEn programan arazo horri heltzen zaio jendeak irakurtzekoan edo entzutekoan izan ohi dituen xedeak aztertuz eta xede horiek trebetasun-

-mailekin erkatuz. “Xedea” zein den zirriboratu da artikulu honen sarrean, baina gogora dezagun horrek galdera hau egitea eskatzen duela “Zergatik irakurtzen du irakurleak testu hau? edo “zergatik ari da entzulea hau entzuten? Benetako munduan (irakurle/entzuleak bere hizkuntza darabilenean) izaten dira jeneralean galdera horientzako erantzunak, eta erantzun horietan aurkitzen da azterketa hauetarako aukeratzen diren atazen oinarria. (Gauzak errazteko, irakurmen-atazekin bakarrik arituko gara. Baina ikuspegi eta printzipio berberak dira entzumenarenak ere).

Irakurtzerakoan oso helburu arrunta izan ohi da *testu batean informazio jakin bat aurkitu eta ulertzea*. Hau idazten ari naizen une honetan Inglaterrako berri handi bat da hauteskunde orokorretarako deia egin dutela. Noizko? Egunkarian titularrak irakurri ditut. Nonbait badago, iruzkin eta erreportaien tartean bila nabilen data. Hauxe da leku aproposa “Hauteskundeetako egutegia”. “Erreginari ikustaldia... parlamentua desegina... kanpainaren hasiera...” hementxe dago “hauteskundeak apirilaren 9an izango dira”.

Jendeak normalean buruan darabilkien galderaren bati erantzuteko irakurtzen du. Nork irabazi zuen atzoko partidua? Nork sartu zituen golak? Zein da presidentearen jarrera Ekialde Hurbileko gatazkan? Nolako eguraldia izango dugu bihar?

Beste xede bat, oso ohikoa hau ere, izaten da galdera baten erantzuna jakin ordez, oro har gaia zein den jakitea, gauzen muina zertan zen alegia. Askotan gertatzen da egunkaria irakurtzen ari zarela (esaterako) eta izenburu batek atentzioa ematen dizula “Gizon batek txakurrari kosk egin”. Hauxe gauza harrigarria! pentsatzen duzu eta azkar-azkar irakurtzen duzu artikulua zer gertatu den jakiteko. Ez duzu xehetasunik nahi: gizonaren izena, edo txakurrarena, edo adina... Zure interesa sinpleagoa da, gizon batek txakurra nola kosk egin ahal izan dion jakin nahi duzu.

Bi alderditatik da garrantzi handikoa irakurtzeari hauek bezalako xedeak aurkitu eta gero horien haritik irakasteko (edo azterketarako) atazak moldatzea. Alde batetik, testari lehen aipatu ditugun *benetakotasunaren* irizpideak ezarriko zaizkio; izan ere, azterketariei bizitzan egiten den zerbait berregiteko eskatzen baitzaie. Bestetik, era honetako testen atzeraeraginak ikasgelan irakurmenaren estrategia eta abildade asko irakasteko bidea ematen du. Bat da irakurleak testuari heltzeko modua gauzen muina jakin nahi duenekoa, eta beste bat, oso desberdina, informazio jakin bat nahi duenekoa. Bigarren hizkuntzan irakurtzea maizegi gertatu ohi da lan nekosoan; irakurleak hitzez hitz irakurtzen du eta ez du aintzat hartzen hitz bakoitzak informazio esanguratsua igortzeko duen funtzioa.

CCSE eskemaren baitan 12 helburu edo xede aurkitu zaizkio irakurtzeari eta mailaz maila ataza desberdinak prestatzeko erabili dira. Gehienek azterketaren maila guztietarako balio dute. Lehen aipatu ditugun bi adibideak 1. edo 4. mailako ikasleentzako ataza seinaltatuak dira. Katategoria horretako helburuak dira hala berean honako hauek ere:

Testu bat irakurtzea:

- ataza jakin bat burutzeko garrantzirik ote duen erabakitzeke (Adib. Bi gutun hauetako zeinetan aurkituko dut nahi dudana informazioa?).
- testu horretan ematen den informazioa lehendik daukagun batekin bat datorren jakiteko (Adib. Trena 7,30etan zela esan zidaten, hori bera al dio ordutegi honek?).
- idazleak gaiari buruz dituen sentimenduak eta jarrera ezagutzeko, debaui azaltzen direnean (Adib. Idazlea deskribatzen duen egitasmoaren aldekoa al da?).
- gauzak nola egin erabakitzeke, testuak emandako informazioaren ildotik (Adib. Ez nekien 8etako trena hartu ala 9etakoa. Orain badaikit 14,30etarako Londonen egon behar dudala; beraz, 8etakoa hartu behar).
- zer testu-mota den jakiteko (Adib. Zer ari naiz irakurtzen, eguraldiaren aurrikuspena edo iragarkiren bat?).

Horrela, beraz, hauexek dira, gure ustez, irakurtzeko helburuak, edozein eratako testak antolatzeke balio izan dezaketenak. Badira, hala berean, beste helburu batzuk goi-mailetarako soilik egokiak ematen dutenak. CCSE eskeman honako hauek bi maila goienekoetarako (3. eta 4.) dau-de markatuak.

Testu bat irakurtzea:

- testu hori, esaterako, esames eta iritzitan oinarritua den jakiteke. (Adib. idazleak nolako frogak aurkezten dituen eta zein mailatakoak diren frogak horiek).
- argudio baten ildoak aurkitzeke (Adib. Idazleak ondorio batera iriste-ko egin dituen pausoak).
- gaiari buruz idazleak dituen sentimenduak eta jarrera aurkitzeke, hauek argi eta garbi azaltzen ez badira ere.
- puntu nagusiak ateratzeko eta horrela testua, ideiare jakin bat edo pentsamenduren bat laburbiltzeke.

Berehala ageri da azken helburu hauek lehenengo haiek baino ataza “akademiko” eta “intelektualagoak” sortuko dituztela, eta horregatik jartzen dira mailarik jasoenetan bakarrik. (Askok bizgarriak aurkituko ditu ama-hizkuntzan burutzeko ere; asko argitzen du horrek “hizkuntza-ren” eta “hizkuntza erabiltzearen” arteko lotura. Berezko zenbait hiztun ere ez da agian gauza izango hizkuntza arrotza edo bigarren hizkuntza ikasten ari direnek beharbada lortu nahi dutena egiteko).

b. Testu-motak

Lehenengo atalean ikusi dugu komunikazio-testen edukia erabakitzeke modu bat dela azterketariet atazen bitartez lortu beharrekoa mugatzea. Beste alderdi bat, garrantzi berdinekoa hau ere, izango da nolako testue-

kin lan egin nahi den erabakitzea. Hots, azterketariek nolako testuak irakurri, entzun edo idaztea nahi dugu?

Hona ondo zehaztu beharreko alderdi bat. Gauza bat da trenen ordutegi batean *informazio jakin bat aurkitzea*; fisika nuklearrari buruzko liburu batean gauza bera egitea, ordea, aski zailagoa izango da. Era berean, ez dira gauza bera lagun bati *eskutitz informal bat idazteko* ataza eta lantegi bateko zuzendaritza-batzordeari *txosten formal bat idaztekoa*.

Sarreran esan dugun legez, benetakotasuna da azterketa hauen kezka nagusietako bat. Atazetan benetakoa izateak eskatzen du azterketariei “benetako munduan” irakurri, entzun edo idatziko lituzketen testuak irakurri, entzun eta idaztaraztea. Baina bada beste benetakotasun bat ere: testuaren benetakotasuna. Irakurmen eta entzumen-testuekin lan egiteko atazetarako “benetako” hizkeran oinarritutako testuak bilatzen saiatuko gara. Horrek esan nahi du benetako bizitzako xederen batekin eta jatorrizko hiztunentzat sortu den materiala sartuko dela atazetan. Irakurmena aztertzeiko materiala laburtu egin daiteke. Baina ez da idazten edo sinpletzen azterketetan erabiltzeko. Entzumena aztertzeiko testetan materiala grabatu egiten da, jeneralean zuzenean, irratiko emanaldiren batetik edo horrelako iturrietatik; luzera moztu daiteke, baina ez da berridazten edo ostera grabatzen.

Atazen aukera bezala, testuarena ere “muin amankomuneko” baten inguruan egiten da edozein mailatarako; testu “aurreratuagoak” zenbait goi-mailatarako bakarrik erabiliko dira.

Hauek dituzu berezitako testu-motak:

. Irakurmenean

– *Maila guztietan:*

Foiletoak	Agendako oharrak
Iragarkiak	Ordutegiak
Gutunak	Mapak
Postalak	Hirietako planoak
Inprimakiak	Egunkari/aldizkarietako
Argibideak	artikuluak

– *3. eta 4. mailetan:*

Egunkarietako erreportaiak (gai bat berari buruzko hainbat artikulua)	Eleberria (laburbilduma)
Egunkariko editorialak	Poemak
Telex/telegramak	

. Entzumenean

– *Maila guztietan:*

Iragarkiak	Elkarriketak
------------	--------------

Eguraldiaren aurrikuspena	Antzerkia
Berri-emanaldiak	Debateak
Erantzungailuetako mezuak	Lehiaketak
Errepide eta zirkulazioari buruzko berriak	Futbol-partidu eta antzekoen kontakizuna
Hurrengo emanaldiei buruzko informazioa irratian	Abestiak

– 3. eta 4. mailetan:

Hitzaldiak	Debateak
------------	----------

. Idazmenean

– *Maila guztietan:*

Inprimakiak	Oharrak (iragarki-taulakoak eta antzekoak)
Gutunak (pertsonalak)	Postalak
Gutun komertzialak	Errezetak
Mezuak (*)	Txostenak
Oharrak (**)	Argibideak

(*) Komunikatzeko modurik sinpleena edo egituragabekoena; ohartxo bat izan daiteke edo telefonoaren ondoan utzitako notatxoren bat esaldi bakarrekoa (esate baterako, norbaitek deitu duela)

(**) Mezua baino gehixeago da; ez du agurtzeko formula formalik (Ez da postaz bidaltzen, norbaiti utzi egiten zaio).

– 3. eta 4. mailetan:

Artikulua	Egunkariko artikulua
Biografia	Apunteak (bilera, liburu edo horrelako batean jaso eta gero gogoratzeko egiten dena).
Curriculum vitae	Laburbilduma
Memoranduma	Telex/telegrama
Egunkariko iragarkia	

c. Trebetasun-maila

Orain arte azaldutako ezaugarriak kuantitatiboak dira. Uste izatekoa da goi-mailako azterketariak behe-mailetakoa baino testu gehiago erabiltzeko eta ataza gehiago egiteko gauzago direla. Baina eta ontasuna? Nola bereizi ataza berean goi-mailakoaren eta behe-mailakoaren trebetasuna. Galdera honi erantzuteko, *trebetasun-maila* kontzeptua sortu da. Zehazkiago, elementu hau pentsatu da erabakitzeko ataza edo testu bateko lan bat noiz den maila jakin bat gainditzeko “aski ona”.

Hemen aurkezten ari garen bezalako lan batean erabakiorra da arlo hau. Lau mailetako azterketari guztiei gutun bera idaztarazten baldin bazaie, zer da nahikoa 1. mailan eta zertan behar du izan “hobea” 2., 3. eta 4. mailetako trebetasunak?

Galdera bera egin daiteke idazmenaz eta entzumenaz. Zein da performantzia “onargarria” 1. mailan eta zertan izan behar du “hobea” gora-goko mailetan?

Galdera horiei erantzuteko, trebetasun-mailaren iritzia zehaztu behar.

Antzekoak dira bi trebetasun sortzaileetako (idazmena eta mintzamina) azterketetan trebetasun-mailak definitzeko moduak eta, hala berean, elkarren antzekoak trebetasun hartzaileentzakoak (entzumenaz eta irakurmena). Arlo hartzailea eta ekoizlea berdinak ez diren bezala, ordea, bakoitzeko azterketak ere aski desberdinak dira. Ikus ditzagun banan-banan.

Arlo sortzaileko trebetasunak

Arlo honetako trebetasun-maila neurtzeko irizpideak errazago azalduko dira lehenbizi mintzamenarentzakoak aztertuz. Gogoan har dezagun abiapuntua zera dela: ataza jakin batean trebetasun “onargarria” kualitatearen aldetik bereizteko modua aurkitzea. Zein dira epaitzekoan aintzat hartu beharreko irizpideak?

Begien bistakoena, beharbada, zehaztasuna izango da. Hitz gutxitan, espero dugu goi-mailetako ikasleek behekoek baino akats gutxiago egingo dutela gramatikan, hiztegia eta ahoskeran. Behe mailetan “onargarri” jo dezakegu errore batzuk izanda ere, komunikazio eraginkorrak eskatzen dituen beste baldintza batzuk betetzen dituen. Goi-mailetan seguraski gure itxaropena jasoagoa izango da.

Baina mintzamenean trebetasunaren jabe izatea ez dago zehaztasunean bakarrik. Ez da aski gramatika eta hiztegia zuzen erabiltzea, garrantzi handia du igorri nahi den mezua igortzeko hitzak zuzen aukeratzea ere. Horrek “egokitasuna” eskatzen du, hots, hizkera unean uneko egoerari eta norberaren xedeei egokitzea. Egokitasuna beharbada errazago ulertuko da hori falta den egoera bat irudikatuz.

Unibertsitateko irakasle bat ekonomiari buruzko hitzaldi bat ematen ari da 150 ikasleko talde bati; gero irakasle hori bera afaltzen ari da bere etxean eta zortzi urteko semea paga handitzeko eskatzen ari zaio. Pentsa dezagun irakasleak hizkera aldatu eta hitzaldi-aretoan bere mutikoarekin erabiliko lukeen hizkera bera erabiltzen duela, eta etxean hitzaldi-aretokoa. Ondorioa komunikazio ustela izango litzateke, lekuari eta egoerari dagokion hizkera erabili ez duelako. Nekez jakin ahal izango litzateke modu horretan zein den hiztunaren xedea.

CCSE eskemaren behe-mailetan, ez dugu espero aztergaiak egokitasunaren kontrol jasorik izango duenik; goi-mailetan, ordea, zehaztasun hertsia ere eskatzen da.

Egokitasunaren zera horrekin lotuta hizkuntz ugaritasunaren irizpidea dator. Elkarrekin lotuta daude, zeren ugaritasunaren jabe denak jakingo baitu bere hizkera testuinguruari, solaskideei eta xedeei egokitzen; baina ez dira gauza bera zeren ugaritasun handiak, egokitasunaz aparte, maila jasoagoan hitz egiteko bidea emango baitio azterketariari. CCSE

programan onartzen dugu azterketariak hizkuntz ugaritasun mugatu samarra izatea; goi-mailetan, poliki-poliki ugaritasun handiagoaren seinale garbiak eskatzen ditugu.

Mintzamenean trebetasun-maila markatzen duen beste faktorea *malgutasuna* da. Azterketariak, elkarrizketaren joanean, eskakizun berri, eta beharbada ustegabekoei, aurre egiteko duen trebetasuna da. Ahozko harremanen ezaugarrietako bat, esanguratsuenetakoa, horixe da: ustegakotasuna. Zuk solaskideari esaten diozunak erabakiko du hark zuri zer esango dizun, eta, era berean, hark esandakoak zuk esango dizuna. Ezin planifika edo saia daiteke alde zuretik solasaldia, eta horrela benetako bizitzan edozein hizkuntzatako hiztunak pasatu behar duen froga horixe da: ustegabekoaren aurrean konpontzen jakitea. Hori ama-hizkuntzan erraz bideratzen dugu normalean; besterik gerta daiteke, ordea, hizkuntza arrotz edo bigarrenen. Solaskideak esan dizuna analizatzea, egoki erantzuteko hitz aproposak bilatzea eta hori guztia bat-batean egitea betekizun izugarria izan daiteke ikasle baten hizkuntz mailarako. Behe-mailetan, aski malgutasun-neurri apala dauka ezarria CCSEk; ez da espero ikasleak solasean ekimena izango duenik, motx-motx erantzutea aski izango duela uste dugu. Goi-mailetan, ordea, beren papera osorik eta malgutasunez beteko dutela espero dugu.

“Motx-motx” esateak mintzameneko azken ezaugarria eta irizpidea dakarkigu: *hedadura*. Askia irizpide zingle eta erraza da, baina oso baliagarria trebetasun-mailak bereizteko. Behe-mailetako azterketarien ezaugarri bat izaten da askotan ez direla gai izaten hizkuntza arrotzean gauza asko esateko; berehala agortzen direla eta zer esan ez dakitela geratzen direla. Esaldi bat edo bi esan eta arnasik gabe geratuko zaizkizu. Goi-mailetan, aitzitik, uste izatekoa da ekarpen zabalak egin dituztela solasean, puntu asko planteatu eta garatuz. Horrela, CCSE eskeman, mintzamina neurtzeko irizpideek, behe-mailetan, ekarpen motz samarrak onartzen dituzte; baina, goi-mailetan, ekarpen osoagoak eta landuagoak espero izaten dira.

Hauek dira, beraz, CCSE eskeman mintzamina neurtzeko azterketetan trebetasuna neurtzeko irizpideen oinarrian dauden bost faktoreak. **.1** laukian azaldu ditugu, lau mailetan faktore hauetan espero den trebetasun-mailarekin batera.

Zein da, ordea, irizpide hauen egitekoa? Zergatik da garrantzitsua horrela zehaztea eta zer dakarkiote programari? Arlo sortzaileetan (mintzamina eta idazmena), ebaluatzeko irizpide dira; bestela esanda, irizpide horien arabera neurtzen da azterketarien lana maila jakin batean onargarria izateko modukoa ote den erabakitzeko. Azterketari bat 3. mailara aurkezten baldin bada, aztertzaileak maila horri dagozkion irizpideak izango ditu aurrean azterketariari entzuten dion bitartean edo haren lana irakurtzen ari denean. Azterketa gainditzeko, azterketariak maila horretarako jarri diren irizpideei dagokien trebetasun-mailarekin egin behar du agindu zaion lana.

Maila jakin bat gainditzeko azterketariek frogatu beharko dute honako irizpide hauek markatzen duten neurriko trebetasuna badutela ezarri-tako atazak egiten:

	1. Maila	2. Maila	3. Maila	4. Maila
ZEHATZASUNA	Onartzen da ahoskeran H-ek eragin handia izatea, oro har ulertzeko moduan hitz egiten badu. Laguntzarekin, gramatika edo hizlegiko akatsak sortutako zalantzak argitzeko gauza da.	Ahoskera argi eta garbi ulertzeko modukoa, nahiz eta oraindik ere H-en eragin argia duen. Gramatika/hiztegiaren zehaztasun handia, nahiz eta komunikazioa oztopatzen ez duten akatsak izan.	Erraz ulertzeko moduan ahoskatuko du, oraindik ere H-en eragin-apur bat baduen arren. Gramatika/hiztegiaren zehaztasun handia, nahiz eta tarteka komunikazioa oztopatzen ez duten akatsak badituen.	Ahoskera erraz ulertzekoa, nahiz eta doinuaren H-en arrasio txiki batzuk badituen. Gramatika/ahoskeran zehaztasun handia behar du izan.
EGOKITASUNA	Hizkuntza oro har zuzen erabilili behar du, nahiz eta berezko hitzuren mailara ez iritsi. Entzule ulertkorrek atzematzen du hitzunik esan nahi duena.	Hizkerak oro har bere funtziorako egokia behar du izan, edo; argi azaldu behar du globalki hitzuren xedeak.	Zereginak eta egoerak eskatzen duten eran erabiliko du normalean hizkuntza. Hitzunik argi eta zailentzari gabe adieraziko du nahi duena.	Hizkuntz erabiliera egoki-egokia egoerako eta xederako. Ez dago zalantzabiderik.
UGARITASUNA	Onartzen da azterketariak espresio-multz oso mugatua izatea, eta esan nahi duena adierazteko bila ibiltzea.	Aski erreperitorio zabala behar du izan. Oso esakune zailetan bakarrik ibiliko da hitzen baten bila.	Hizkuntz erreperitorio zabala. Erraz ordezkatzan du edo sailsten eragozpenik sor diezaiokkeen oro.	Oso tarteka bakarrik izango ditu baliabide-faltak. Ez zaio barkatuko ezer jatorrizko hitzuna ez izateagatik.
MALGUTASUNA	Ez da usie ikasleak solasean ekimena izango duenik edo gaia aldatzean berehala erantzungo duenik. Solaskideak askotan amore eman beharko du eta lagundu.	Solasaldia hasteko gauza dela azaldu behar du eta besteari parte hartzen utzi behar dio. Malguta behar du izan gai berri eta aldaketan aurrean.	Solasaldian hitza hartzeko erraztasun osoa azalduko du, eta hala berean gai berriei helitzeko edo solasaldiaren aldaketetan erreakzionatzeko.	Hitza hartzeko eta solasaldia eramane eta hizketaldiari eusteko gauza da.
HEDAPENA	Esaldi sinple bat edo biko ekarpenak onartzen dira.	Esaldi sinpleak baino gehiago erabiltzeko trebetasuna izango du. Esaldi sinpleak luatzeko gauza izan beharko luke, solaskideak iradokizunlik eginez gero.	Behar denean luze hitz egiteko gauza behar du izan. Bere pentsamendua solaskidearen laguntzarik gabe adierazi eta gertatzeko gai izango da.	Ekarpen luze eta korapilatuen egiteko gauza da, hala behar izanez gero. Ez du ezertarako solaskidearen laguntzarik behar.

Bi gauza dira esan beharrekoak irizpide hauen izaerari eta erabiltzeko moduari buruz. Bata, irizpideak berez direla kualitatiboak, azterketariak egindakoaren kalitatea atzematea baitute helburu. Horregatik, ezinbestean dira subjektiboak eta dauden eran derrigor izan behar interpretazio desberdinen gai. Zer adierazi nahi du, adibidez, “erraz ulertzeko modukoa” esateak? Zein da hizkuntzaren “ugaritasun ona”? Zeinen egokia da “oro har egokia”? (Hori guztia 2. mailakoa da). Argi dago batentzat “erraz ulertzeko moduko” dena beste batentzat ez dela horrela izango. Horrek esan nahi du aztertzailerik hizkuntzako azterketetan horrelako irizpideak erabili aitzin bildu egin beharko dutela estandarizazio batera iristeko. Gure eskarmentuak dio elkarrekin lan egin nahi duten aztertzailerak aski bat egitera etortzen direla azterketarien lan grabatuak bideoz ikusiz. Jakina, aukera anitzeko testak erabiltzea edo erantzun zuzenak kontatzea baino lan korapilatsuagoa da, baina ordainetan onura handiak dakartza testean bertan eta ikasgelan azterketarako egiten den preskakuntzan. Gurekiko, horretara ez iristeak irakaskuntza bere osoan eta hizkuntz azterketak andegatzeko arrisku handia dakar.

Irizpide horiei buruz esan beharreko bigarren puntua da jardunean dutela oinarria. Galdetzen bazaigu: Zein da 4. mailako ziurtagiria lortu duen azterketari baten eta 1.gokoa duen baten arteko aldea? Bataren eta bestearen trebetasuna bereizten dituzten irizpideak erakuts ditzakegu. Hori ez da esatea “honek aukera anitzeko testean 24/100 lortu du eta beste honek 96/100”, hori beste kontu bat da. Irizpide hauen oinarria ataza batean egindakoan dagoenez, ezinbestean islatuko dute behe-mailetakoen trebetasuna “hoberena” izatetik oso urruti dagoela. Horregatik diogu CCSE eskeman 1. mailan (zehaztasuna) “Onar daitekeela ahoskera ama-hizkuntzaren eraginpe bortitzean egotea, ikasleak oro har ulertzen baldin badu”, (Ugaritasuna) “Onargarria da azterketaria espresio-multzo oso mugatuaren jabe izatea”... etab.

Hizkuntz irakasle batzuk harritu egiten ditu azterketetan hoberena baino maila apalagoko trebetasuna onartze horrek, baina guretzat errealitatearen isla funtsezkoa da hori. Hobe da behe-mailetakoko azterketariak ikasi duten hizkuntz zatia erabiltzen jartzea eta beren mezuek igortzen saiaraztea (nahiz eta “akats” batzuekin izan.) esaldi “zuzenak” esateko gai izatera iritsi arte zain edukitzea baino. Goi-mailetan, jakina, eskakizunak aldatu egiten dira eta askoz ere zehaztasun handiagoa eskatuko da. Baina hemen iradoki dugun moduan lan egiteak beren helburuak argitzeko era ematen die irakasleei (eta aztertzailerik) beren eta ikasleen onerako.

Orain arte azaldu ditugun irizpide horiek mintzamina aztertzeko erabiltzen ditu CCSEk. Horien antzekoak dira idazmina neurtzekoak ere: zehaztasuna, egokitasuna, ugaritasuna, konplexutasuna. Azkeneko hau berria da; esaldiak, paragrafoak eta testuak eraiki eta antolatze moduarekin du zerikusia. 1. mailan, ez dugu espero hizkuntza konplexurik; esaldi zingreak ere onartzen ditugu. Baina, maila jasoetan, gero eta esaldi konplexuagoak espero dira eta ideiak era sofistikatuagoan ekarri eta garatuko dira.

Trebetasun hartzaileentzako irizpideak

Ikusia dugun eran, mintzamenean eta idazmenean trebetasun-maila neurtzeko irizpideak ikaslearen trebetasuna ebaluatzeko erabiltzen dira. Trebetasun hartzaileen arloan (entzumena eta irakurmena) beste bat da irizpide horien erabileraren helburua. Ikasleek ekoizten dutena ebaluatzeke erabili beharrean, ezarriko diren atazak moldatzen laguntzeko erabiliko dituzte aztertzaileek.

Artikulu honetako beste zenbait ataletan ikusi dugun gisan, ataza, testu-mota eta trebetasunei buruzko bereizkuntzak izango dira azterketa hauetako mailak ezartzeko oinarria. Trebetasun hartzaileen arloan, ataza zailagoak ezartzen dira goi-mailetan, behe-mailetan ataza aski “errazak” ezartzen diren bitartean. Azterketariengandik zein trebetasun-maila espero den izango dute irizpide aztertzaileek ataza “zailak” eta “errazak” definitzerakoan. Irakurmenarentzako irizpideak .2 laukian azaldu ditugu. Horko termino eta esaldi batzuk ezagunak izango dira idazmena neurtzeko irizpideez hitz egin denean azaldu direlako, baina, oraingoan, ikasleak testuari jarraitzeko duen trebetasunari emango zaio arreta ekoiztekoari baino lehen eta gehiago.

Hemen *konplexutasunak* esan nahi du ikasleak testua eratuta dagoen modua ulertzeko duen trebetasuna, eta, ondorioz, narrazio, deskribapen edo hitzaldiaren egiturari jarraitzekoa. 1. mailan oso trebetasun mugatua espero da, baina 4.ean testuaren egitura “esplizituki adierazia ez dagoenean” ere atzematea eskatzen duten atazak jartzen dira.

Ugaritasunak testu batetik azterketaria ateratzeko gauza izango den informazioaren edo zertzeladen zenbatekoa adierazten du. Behe-mailetan aski da puntu nagusiak ulertzea, baina goikoetan detaile gehiago eskatzen da.

Abiadura oso alderdi garrantzitsua da hizkuntza bigarren edo arrotzetako irakurmenean. Ikasle askok oso motel irakurtzen du, hitz bakoitzean geratuz. Ondorioz, oso txikia da denbora-une batean lan dezakeen testu-zatia. Behe-mailetako atazak prestatzean kontuan hartzen dute hori aztertzaileek, baina goi-mailetan azterketariak azkar eta ongi irakurriko dutela espero izaten dute.

Abiadurarekin lotuta dago *malgutasuna*. Artikulu honetan, maila bakoitzerako ataza desberdinen berezitasunak ezartzeaz aritu garenean, aipatu ditugu, informazio jakin bat eskuratzeko irakurtzea edo ideia orokor bat edukitzeko irakurtzea. Bi xede horiei bi irakurtzeko estilo dagozkie eta malgutasunak adieraziko du noraino espero diren ikaslearen rangen testua irakurtzeko estilo desberdinak. Behe-mailetan malgutasuna ez da handia izango, goragokoetan handituz joango da.

Independentzia da irakurmena neurtzeko azken irizpidea. Esan nahi du behe-mailetan ikasleak benetako testuari heldu behar dionean, laguntza handia beharko duela seguraski taxuz lantzeko. Ikasgelan, jakina, irakasleak lagun diezaioke, baina azterketetan beste moduren batzuk aurkitu behar. Horietako bat da testua bere testuinguruan lekutzea, esaterako, pertsonaiak zein diren esplikatuz edo testua ulertzen lagunduko duten

Azterketariak burutu beharreko atazak sortu eta berorien performantzia neurtzeko, honako trebetasun-inizpide hauetan hartzen dute oinarri aztertzailleek. (Kontuan har aski trebetasun mugatua espero dela behin-mailetan eta gero eta osoagoa goragokoeian. Maila bat gainditzeko, azterketariak azaldu behar dute baduteila ezarriako atazak burutzeko trebetasuna. Honako inizpide hauetan ezartzen diren trebetasun-mailak eskatuko zaizkie hizkuntzaren erabilieran:

	1. Maila	2. Maila	3. Maila	4. Maila
KONPLEXITASUNA	Ez du testuaren egiturari zehatz-mehatz segitu beharrik.	Oro har ulertuko du testu sinple baten egitura, baina atazak adieraziko duten marka espizitu batzuen baitan.	Testuaren egitura oro har ulertuko du azterketariak, atazk hori ulertzea eska baitzeko.	Testuaren egiturari jarraituko dio, nahiz eta hau argi eta garbi adierazia ez egon.
UGARITASUNA	Puntu nagusiak bakarrik maneiatu behariko ditu. Xehetasun esanguratsu ale batzuk ulertu behariko ditu.	Testuaren puntu nagusiak ulertzeko gauza da, eta hala berean zenbait xehetasun ere.	Testuaren puntu nagusiak eta xehetasunik gehienak ere atzemango ditu.	Testuaren puntu eta xehetasun guztiak atzemango ditu.
ABIADURA	Seguraski oso mugatua. Irakurtzea lan nekeza gerta dakioke.	Taxuz ulertzeko, ez du testuko hitz bakoitzaz arretatu beharrik.	Aski erraz irakurtzeko gauza da. Apenas abiadurak ulertuntzan eraginik izango duen.	Oso erraz irakurtzen du. Abiadurak ez du inolako eraginik horretan.
MALGUTASUNA	Trebetasun mutaturia eskatzen da maila honetan irakurtzeko estiloa irakurketari egokitzeko.	Testu-moten, gaien edo estiloen hurrenkerak aldatuz gero, hasieran nahastu egingo da. Badiu, hala ere, irakurtzeko estiloa atazari egokitzea.		Ez du arazorik testu-, gai-eta estilo-hurrenkerekin. Trebetasun osoa du irakurketa-estiloa atazari egokitzeko.
INDEPENDENTZIA	Azterketariak laguntza handia behar du. Atazak noia egituratu diren, zein izenburuekin azaltzen diren eta nolako testuinguruan sortuak diren azaldu behar zaio. Aagian hitz askoren esanahia hiztegian begiratu behariko du.	Lehen mailakoaren antzeko laguntza apur bat behariko du. Eta hiztegia ere askotan erabili beharra.	Laguntza gutxirekin aski du atazen egiturak, izenburuak eta testuinguruak ulertzeko. Gutxi erabiliko du hiztegia.	Ez zaio laguntzarik emango testuaren zertzeladak ulertzeko. Hiztegia beharbada noizean behin erabiliko du.

beste informazio batzuk emanez. Beste modu bat hiztegia erabiltzen uztea litzateke. CCSEko azterketan ikasle guztiek dute zilegi hiztegia erabiltzea (hori benetako bizitzan eskura dauzkaten baliabideen isla baita). Irakurmenaren azterketetan, ikasleei lana burutzeko ematen zaien denborak berak ispiatzen du zer espero den: behe-mailetakoek hiztegia asko erabiliko dutela, baina goi-mailetako azterketariak independentea-goak izango direla.

Ez ditugu hemen sartu entzumenaren trebetasun-mailen irizpideak. Irakurmenarenak berberak dira, baina *abiadura* gehituz. Horren arabera neurtuko da behe eta goi-mailetakoek mintzoaren zein abiadurari aurre egiteko abildadea duten eta nolako aldearekin. Eskarmentuak erakusten du zenbateko oztopoa den hiztunaren abiadura, itxuraz handia, hizkuntza arrotzen ikasleak solasaldi edo hitzaldiren bat entzuten duenean. Ikasleei askotan iruditzen zaie hitzak oso abiadura handian heltzen zaizkiela. Agian ez da horrela izango, baina hala iruditzen zaie. Zenbat eta ikaslea aurreratuago, orduan eta hobeto egingo dio gogor arazo honi.

Azterketak nola egiten diren

Komeniko da agian azterketa horiek nola egiten diren azaltzea. Zein da funtsa? Nola aplikatzen dira?

Artikulu honetan lehen ere esana dugun legez, 16 azterketa desberdin ekarri ditugu hona aplikazioaren aldetik ikusteko (lau maila eta lau trebetasun, arlo bakoitzeko bana). Ez da txantxa urtean bitan azterketa horiek prestatu eta kudeatzea. Ekoizpenaren aldetik bi eginkizun dira funtsezkoak: doikuntza eta aproba.

Doitzeak esan nahi du eskarmentua duten hainbat lagun bilduko direla trebetasun jakin baten arloan prestatutako azterketak gainbegiratu eta ezarritako zehaztasun guztien arabera neurtzeko. Beste hitz batzuetan, lana sakon-sakonetik aztertu behar dela azterketarien (eta hauek ikasten aritu diren ikastetxeetako irakasleen) espektatibei benetan erantzuten dietela ziur egoteko. Munta handikoa da prozesu hau sistematikoki eta kontu handiz egitea, azterketak prestatu duenaren uste hutsa isla ez dezan.

Doitzea, garrantzi handikoa izanik ere, lehen pausoa besterik ez da. Hori taxuz egin ondoren, aproba egin beharko da. Horrek esan nahi du azterketa egingo den mailako ikasleei eskatuko zaiela egin dezaten, horrela ziurtatuko da atazak egiteko modukoak direla eta ezarritako denboran egin daitezkeela. Behar denean, gauzak berrikusi egiten dira aproba horiek erakusten duten ildotik azterketa “benetako” azterketariei jarri aurretik.

Behin bi pauso horiek, doikuntza eta aproba, burutu ondoren, zertan datza benetan CCSE azterketa?

Irakurmena

Irakurmena aztertzekeo materiala hainbat testu dituen foileto bat eta egin beharreko atazak azaltzen dituen galdesorta bat izaten dira. Maila bakoitzari bere ataza-multzoa dagokio (zenbakiz eta eraz). 1. eta 2.

mailetan ordu bete irauten du azterketak; 3. eta 4.ean ordu eta erdi. Azterketariei, gainera, beste hamar minutu izaten dituzte foiletoa eta galdesortari lehen begiratu emateko. Maila bakoitzerako ezarrita dauden benetako testuek osatzen dute foiletoa, jatorriz azaldu ziren era berberan, facsimilean. Zenbaitetan testu guztiak gai bati berari buruzkoak izaten dira, edo iturri bakarretik hartuak (aldizkari edo egunkariaren bat, esaterako). Beste batzuetan iturri bat baino gehiagotatik hartzen dira edo gai bati baino gehiagori buruzkoak izan daitezke. Azpimarratzekoa da, dena den, lau mailetan material-multzo berbera erabiltzen dela. Horrek ez du esan nahi ezinbestean testu berberak izango direnik maila guztietan (beharbada bai). Horrek esan nahi du azterketariei beren gisara konpondu beharko dutela foiletoarekin, eta, bestalde, neurtuko den abildadeetako bat emandako argibideen bitartez testu bat aurkitzekoa izango da.

Adibideak:

(1. maila)

Munduko gertaera orokorrei buruzko aldizkaria da New Internationalist. Hona hemen 200. aleko zenbait orrialde. Ikus edukien zerrenda 2. orrialdean.

Idatzi:

1. Txinari buruzko artikulu baten orrialde-zenbakia.
2. Jesse Jackson-i buruzko artikulu baten izenburua.

(4. maila)

Ikus aldizkariaren azala eta edukien zerrenda. Badakizu nazioarteko gertaerak direla aldizkari honen gaia, baina, zure iritziz, zeri ematen dio lehentasuna: nazioarteko komertzioari, garabidean dauden herrialdeei edota munduko osasunari?

Idatzi:

1. Aldizkariak azpimarratzen duena.
 2. Zure ustez interesgarri izan daitezkeen bi artikuluren izenburuak eta orrien zenbakiak.
-

Entzumena

Entzumena neurtzeko testa grabatutako kasete batek eta hori entzunez bete beharreko galdesorta batek osatzen dute. Irakurmenean ez bezala, maila bakoitzeko testetarako bere kasetea erabiltzen da, aldagaietako bat laburbildumaren entzunaldiak baitira. 1. mailan bi aldiz entzuteko aukera ematen zaie azterketariei; goragoko mailetan, gero eta testu gutxiago errepikatuko dira. Zintaren iraupenak erabakiko du azterketarena; bertan daude, aldi berean, argibideak, eta baita egin beharreko geldialdiak ere. Normalean 30 minutu irauten du azterketa honek.

Adibideak:

(1. maila)

Medikuarengana joan nahi duzu; beraz, kontsultoria dei egingo duzu. Entzun eta erantzun galderei.

(Zintan mezu bat entzuten da erantzungailu automatikoan)

1. Kontsultoria zabalik al dago?
2. 0345629 al da larrialditan deitzeko telefono-zenbakia?
3. Normalean ordua eskatu behar izaten al duzu Petri doktorearekin egoteko?

(4. maila)

Londoneko metroari buruzko emanaldi bat entzungo duzu; esataria sistema horren alde arituko da.

Zer dio

1. Parisko eta Moskuko metroei buruz?
 2. Londoneko ingeniariari buruz?
-

Idazmena

Idazmena neurtzeko testak idazlan-multzo bat dira azterkerariak bete beharrekoak. Ordu bete izango dute 1. mailan, ordu eta erdi 2.ean, bi ordu 3.ean eta bi ordu eta erdi 4.ean. Horren arabera, zenbat eta maila altuago, orduan eta egin beharrekoa zailago.

Zenbaitetan atazak gai baten beraren ingurukoak dira (adib. oporrak prestatu); beste batzuetan, gai-multzo baten ingurukoak.

Adibideak:

(1. maila)

Konbite bat hartu duzu lagun baten gurasoek, Johnson senar-emazteek bidalitakoa. Ana zure lagunaren urte betetzeko jairako konbitea da, eguna, helbidea eta abarrekin (facsimila).

Idatz iezaiezu erantzuna Johnson jaun-anderei. Eskertu eta baiezkua eman. Galdetu Anari zer opari egin diezaiokezun.

(4. maila)

Honako informazio hau irakurri duzu liburu batean Ingalaterrako Ingeles-eskola bati buruzkoa. Cambridgeko Ingeles-eskolan ikasteko beka bat eskatzea erabaki duzu.
(eskola horri buruzko informazio ematen duen eta beka eskatzeko modua azaltzen duen inprimakia)

Idatz ezazu gutun bat Bridge School of English-era curriculum vitae motx batekin.

Idazmenaren testak bezala, honek ere aztertzaileak ebaluatzeko moduko hizkuntz ekoizkinak eskatuko dizkio azterketariari. Bi zati ditu.

1. zatian solaskideren batekin hitz egingo du azterketariak (bere eskola-ko irakaslea jeneralean) aztertzaileak entzun eta trebetasuna neurtzen dion bitartean. Egin beharrekoa, oraingoan, elkarriketa sinple bat da, azterketariari bere buruaz hitz egiteko aukera ematen diona.

Azterketa-gelara sartu aurretik, bost minutu izango ditu ikasleak prestatzeko.

Adibideak:

1. zatian: hona hemen galdesorta bat zure buruaz eta zure aisia-denboraz. Erantzun galdera hauei, aukeratzen duzunari gurutzea jarritz.

1. Zenbat denbora daukazu aisiarako?

Nahikoa ez
Nahikoa
Gehiegi

2. Zer egiten duzu aisialdian (markatu x)

Musika entzun
Kirola
Telebista ikusi
Irakurri
Eskulanak (maketak, pirograbadoa, altzariak...)
Beste gauza batzuk (esate baterako,...)

Azterketa-gelara sartzen zarenean hitz egin dezakezu erantzun horietaz zeure irakaslearekin.

2. zatian bi azterketari jarriko dira elkarren ondoan, bion artean ataza bat burutzeko. Normalean eztabaida eta plangintza edo bide bat erabakitzea eskatzen duen egitekoren bat izango da. Azterketariak elkarrekin hizketan ari diren bitartean aztertzailea entzuten egongo zaie, baina parte hartu gabe. Bost bat minutu igarotakoan, aztertzailearekin bilduko dira eta erabaki dutenaren berri eskatuko die, eta (maila altuetan) erabaki hori azaldu eta zuritu beharko dute.

2. zatia: zure laguna eta biok lehen inoiz egon ez zareten leku batera joango zarete oportetan. Joan aurretik, leku hura ondo ezagutzen duen batekin hitz egiteko aukera izango duzue. Erabaki ezazue zein galdera egin. Gogoan hartu: leku hari buruz ahalik eta gauza gehien jakitea da helburua.

(4. maila)

Ohikoa izaten da Telebistan, aldizkari eta egunkarietan urtearen azkenean aurreko hamabi hilabeteen balantzea egitea eta zenbait gertaera berrikus-tea.

Egizu zeurekiko garrantzi handikoak izan diren lau gertaeraren zerrenda. Azterketa-gelan zure lagunak eta biok zerrenda horiei buruz hitz egingo

duzue eta bion artean erabaki beharko duzue zein diren hiru gertaerarik handienak.

Gero aztertzailea zuenganatuko da eta zer erabaki duzuen azaltzeko eskatuko dizue. Baita ere, zuen irakasleak zerrenda horri buruz iradokizunik ba ote duen jakin beharko duzue.

Ondoriobidez

CCSE programa hizkuntz azterketarako orientabide bat da ikasleei hizkuntzaren erabileran aurrera egin ahal izateko modu bat erakusten die-na. Mailaz maila trebetasun bakoitzeko ziurtagiriak eskaintzeak “zer egiteko gauza” diren aitortzen die, baina “egiteko gauza ez direnarengatik” zigortu gabe. Bi alderdi horiek batera azterketariari bere trebetasuna hobetzeko motibazioa emango diote hizkuntz ikastaroan helburu argiak eta baliozkoak izango baititu bere aurrean; eta azterketako xedeak irakaskuntzaren xedeekin bat etorriko dira.

Itzultzailea: Boni Urkizu

Oharrak

RSA (Royal Society of Arts). Erakunde hau XVIII. mendean sortu zen “arteen eta merkataritzaren garapena sustatzeko”. Industrigintzako hezkuntzan sortzen diren arazoak hobeto ezagutzeko topaketa eta elkarriketa-programa bat dauka martxan.

Gaur egun egiten duen lan nagusietako bat industrian eta merkataritzan jardun nahi duten gazteei trebetasun-ziurtagiriak emateko azterketak sortu eta aplikatzea izaten da.

Egilea

Keith Morrow-k ia hogeitaz hamar urte daramatza hizkuntzen irakaskuntza eta azterketetan ikuspegi komunikatiboz. Hirurogeita hamargarren hamarkadaren erdi aldera, Reading Unibertsitatean ari zelarik, RSAk hizkuntz azterketa komunikatibo batzuen bideragarritasuna aztertzeko eskatu zion.

Bide horretatik, RSAk CUELF izenarekin (Communicative Use of English as Foreign Language) eza-gutzen diren azterketak sortu zituen. Keith izan zen programa horretako aztertzaile-buru harik eta programa hori 1988an Cambridge Unibertsitateko Lekuan Lekuko Azterketa Sindikatuak beregan har-

tu zuen arte. Orduan, berriro ikertu ondoren, CCSE (Certificates in Communicative Skills = Ingeleseko komunikazio-trebetasunen ziurtagiria) azterketak berrezartzea erabaki zuen Sindikatuak. Oso hurbile-tik jarraitzen dio lan horri Keith irakasleak.

Hona azterketa-arloan egileak argitaratutako lanak:

Techniques of Evaluation for a Notional Syllabus: Royal Society of Arts-ek argitaratutako monografia. 1977 (Lan hau eskuratzeko honoko helbidera jo: EFL dept, UCLES, 1 Hills Rd, Cambridge, CB1 2EU)

“Communicative Language Testing: Revolution or Evolution” in *Communicative Language Teaching* ed. C. Brumfit & K. Johnson. OUP 1980

“Examinations in the Communicative Use of EFL” in *Case Studies in ELT* ed. R.R. Jordan. Collins 1983

“The evaluation of Tests of Communicative Performance” in *Innovations Language Testing* ed. M. Portal. NFER/Nelson 1986

“Evaluating Communicative Tests” in *Proceedings of the 1990 Annual Conference of RELC*, Singapore, RELC 1991

Gaur egun aholkulari autonomia da hizkuntzen irakaskuntza eta azterketaren arloan.